

JARDUERA

ESKOLA BAT SAYARENTZAT

Funtsezko kontzeptuak

- ☒ Elkarrenpeketasuna
- ☐ Irudiak eta pertzepzioak
- ☐ Gizarte-justizia
- ☐ Gatazkak eta konponbidea
- ☒ Aldaketa eta etorkizuna

Helburuak

- Enpatia sustatzea eta elkartasuneko jarrerak garatzea.

Ebaluazioa

- Entzute aktiboa eta parte hartze maila.


Materiala

- "Eskola bat Sayarentzat" aurkezpen interaktiboa eskuragarri duzue "Urak eskolara eramaten gaitu" irakasgaiko USBan eta www.enredate.org webgunean.

Ezagut ezazu Sayaren eskutik, eskolara joan nahian dagoen Nigerreko neskatxaren eskutik, ura eskuratzearen eta hezkuntzarako eskubidearen arteko lotura.

Jarraibideak

"Eskola bat Sayarentzat" ipuin moduan azaldutako aurkezpen interaktiboa da. Arbela digital batean proiektatzeko pentsatu da, nahiz eta ohiko proiektagailuan ere erabil daitekeen. Aurkezpenak girotzen laguntzen duten hainbat soinu ditu baina audiorik gabe ere erabil daiteke. Ipuinean zehar honako jolas hauek aurkituko dituzu:



Aurpegi-espresioak.

Kontakizunean zehar, Sayaren gogo-aldateak ezagutzen joango zara, egin ezazu klik adierazitako gogo-aldate bakoitzari hoberen egokitzen zaion aurpegi-espresioan.



Bilatu eta aurkituko duzu.


Sayak komunak aurkitu behar ditu eskolan. Ireki itzazu ateak gainean klik eginda eta harrituta geldituko zara.



Zirriborroak. Egin klik Sayaren irudiaren gainean eta marraz ezazu etxetik eskolara doan bidea. Saia zaitetz bidetik ez irteten eta bidean agertuko zaizkizun arriskuekin topo ez egiten. Lerroa bidetik irteten denean, gorritz markatuko da eta arrisku batekin talka egiten duzunean jolasa une batez etengo da.



Harrapa itzazu tantak. Tanta bakoitza ekarpen txiki bat da eta guztiak batzen badira eraldaketa izugarria sor dezakete. Egin ezazu klik tanta bakoitzaren gainean eta lotzen joango dira eskola bat sortu arte.



Margotzeko txantiloia.

Inprimatu eta margotu ezazu Saya eta bere lagunak eskola.

Garapena

1. Aurkezpen interaktiboa ipini eta ebatz itzazue denen artean aurkezten diren jolasak.

2. Inprimatu eta margotu ezazue Saya eta bere lagunak eskola.

3. Taldean eztabaidatu nolakoa gustatuko litzaizuekeen izatea Sayaren eskola.